



Andoaingo Udala

Euskara Zerbitzua



Andoain, 2024-11-04

*“Kazetaritza saria” eta “Komunikazio saria” ataletarako finalisten izenak asteazken honetan jakinaraziko dira.*

## **Ana Galarraga Aiestaran kazetaria, 2024ko Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren ohorezko mugarria.**



**Azaroaren 27an izango da sari banaketa ekitaldia Andoainen, eta han Kazetaritza eta Komunikazio Saria nortzuk diren jakinarazteaz gain, Ana Galarraga Aiestaranek jasoko du ohorezko mugarria.**

[Ana Galarraga Aiestaran](#) (Zarautz, 1960) Albaitaritzan eta Elikagaien Zientzian eta Teknologian lizentziatua da eta zientzia-komunikazioan aritzen da batik bat Elhuyarreko zientzia ataletik. Zehazki, Elhuyar zientzia-dibulgazioko aldizkariaren eta zientzia eta teknologia ikuspuntu feministatik lantzen dituen Uhin Ultramoreak podcastaren zuzendarikidea da, eta hainbat hedabidetan argitaratzen du: Elhuyarren zientzia.eus atarian eta Berria egunkarian esaterako, baina baita Mastodon.eus eta X/Twitter plataforma digitaletan ere. Dibulgatzaile jori eta eskuzabala da. Euskal komunitate zientifikoaren Inguma datu-baseak Galarragak idatzitako 250 artikulua baino gehiago biltzen ditu.

Hiru eremu dira nabarmentzekoak, gutxienez, Ana Galarragaren ekarpenean: lehenik, desinformazioa nonahi dugun garai honetan zientzia-dibulgazioaren garrantzia mahai gainean jartzeko egiten duen ahalegin eta ekoizpen aparta; bigarrenik, iparrorratz darabilen ikuspegi feminista, asko aurreratua dugun



**Andoaingo Udala**

Euskara Zerbitzua



arren oraindik ere erresistentziak —erresistentzia eraberrituak— eragiten dituen gaia ere baden garaiotan; eta, hirugarrenik, komunikazio jarduna euskaraz eta zero kilometrotik egitea, gertuko begirada hori geruza globalekin ere osatuta hainbat plataforma, formatu eta esparrutan (prentsa, hitzaldiak, podcasta, plataforma digital komertzial zein libreak, eta beste).

Zientziaren protoi bihurtu du feminismoa eta elektroiz euskara. Dena aldatzen eta aldatzeko ari den atomoetako bat da. Erreplikatzeko moduko eredua.

Horregatik guztiagatik, eta beste arrazoiengatik, Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren epaimahaiak izendatu du Ana Galarraga Aiestaran aurtengo ohorezko mugarria eta azaroaren 27an eszenatoki gainera deituko du Xabier Laka eskultoreak mugarri honetarako sortutako oroitikurra jaso dezan.

Kazetaritza eta Komunikazio ataletarako 4na finalisten izenak azaroaren 6an, asteazken honetan, jakinaraziko dira.

Ohorezko mugarria nahiz finalistak izendatu dituen eta sariak erabakiko dituen epaimahaia ondorengoek osatzen dute: **Miren Berasategi Zeberio** (Deustuko Unibertsitateko irakasle eta ikerlaria), **Eneko Bidegain Aire** (idazlea eta Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko irakaslea), **Itxaro Borda** (idazlea eta prentsa kolaboratzailea), **Angel Erro Jimenez** (idazlea, itzultzailea eta prentsa kolaboratzailea), **Pantxika Maitia** (kazetaria), **Libe Mimenza Castillo** (UPV/EHUko irakaslea eta ikerlaria), **Marta Lasa Goñi** (mahaiburua eta Andoaingo Udaleko Euskarako zinegotzi arduraduna), eta Arantza Aguado Perugorria (idazkaria eta Andoaingo Udaleko Euskara teknikaria).